

## **ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA**

### **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

**2023-2024 denboraldia**  
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

#### **11. astea (2024ko martxoaren 11tik 17ra)**

*Bai gripe-birusaren zirkulazioak, zein COVID-19aren intzidentziak, balio baxuetan egonkortzeko joera dute. Bronkiolitisaren diagnostikoek gora egin dute nahiz eta ABSk eragindako infekzioek behera egin.*


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 389,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (394,4/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasa egonkortu egin dela dirudi behin gailur epidemikoa igarota eta bronkiolitisarenak gora egin du aste honetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 36 lagin jagoleen % 61,1 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 2,8) eta gripe-birus bat (positibotasuna % 2,8) atzeman direlarik. Ez da ABSik detektatu, baina bai 7 errinobirus, 6 metapneumobirus eta 6 parainfluenza birus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 14,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 23 SARS-CoV-2, 30 gripe-birus eta 11 ABS erregistratu dira.

## AIA Lehen Mailako Arretan

### Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 389,7 kasukoa izan da (394,4/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 317,2/100.000 izan da Araban, 413,9/100.000 Bizkaian eta 384,7/100.000 Gipuzkoan.

**AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1996,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 614,3 kasurekin. Aurreko asterekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherako eta 44 urtetik gorako adin-taldeetan.

**AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasak aldaketa handirik gabe mantendu dira aurreko astearekin alderatuta.


**AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**

ESI	Tasa 11. astea	Tasa 10. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	341,1	335,5	1,02 (0,93-1,11)
Arabar Errioxako ESI	664,6	698,7	0,95 (0,70-1,30)
Barakaldo-Sestaoko ESI	334,2	358,1	0,93 (0,82-1,07)
Barrualde-Galdakaoko ESI	442,9	464,4	0,95 (0,89-1,03)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	448,7	442,0	1,02 (0,95-1,09)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	421,4	448,1	0,94 (0,85-1,04)
Uribeko ESI	328,0	347,2	0,94 (0,85-1,05)
Bidasoako ESI	347,9	328,4	1,06 (0,89-1,26)
Debararrenako ESI	465,9	385,0	1,21 (1,03-1,42)
Debagoienuko ESI	289,3	303,3	0,95 (0,78-1,17)
Donostialdeako ESI	348,7	339,8	1,03 (0,95-1,11)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	442,0	489,1	0,90 (0,79-1,03)
Tolosaldeako ESI	441,8	452,7	0,98 (0,83-1,15)

Gripe-sindromearen tasa egonkortu egin dela dirudi aste honetan eta 4,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (4,2/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du aste honetan eta 294,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (249,6/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



## Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoletako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 36 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 61,1 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat eta gripe-birus bat (AH1pdm09) atzeman dira, ABSik, aldiz, ez. 7 errinobirus, 6 metapneumobirus eta 6 parainfluenza ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE**



Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak nahiko egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 2,8, % 2,8 eta % 0,0, hurrenez hurren). Metapneumobirusaren positibotasuna % 16,7koa izan da (% 19,7 aurreko astean) eta errinobirusarena % 19,4koa (% 14,8 aurreko astean).


**Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoletan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE**

	11. astea		10. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	1	2,8	2	3,3	241	18,2
SARS-CoV-2	1	2,8	0	0,0	72	5,4
ABS	0	0,0	0	0,0	90	6,8
Metaneumobirus	6	16,7	12	19,7	79	6,0
Parainfluenza	6	16,7	4	6,6	31	2,3
Adenobirus	0	0,0	1	1,6	31	2,3
Errinobirus	7	19,4	9	14,8	261	19,7
Urtaroko CoV	5	13,9	6	9,8	80	6,1

## AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


### Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 14,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (12,9/100.000 aurreko astean), 14,2/100.000 emakumeetan eta 14,0/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 37,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 32,2 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 5-14 urtekoan izan ezik, non mantendu egin den.

### AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




## AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Hiru arnas birus nagusien positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da modu egonkorrean, aste honetan gripe-birusaren positibotasuna % 1,4koa (% 0,5 aurreko astean), SARS-CoV-2arena % 1,7koa (% 1,0 aurreko astean) eta ABSrena % 3,2koa (% 4,1 aurreko astean) izan direlarik. Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 17,2) eta errinobirusarena (% 22,4) izan dira.

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE**

	11. astea		10. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	232	1,7	205	1,0	6820	9,4
Influenza	217	1,4	195	0,5	6426	18,7
ABS	185	3,2	170	4,1	5402	14,5

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE**




## Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 23 SARS-CoV-2, 30 gripe-birus eta 11 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 30 gripe-birusetatik, 12 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 7 A(H3), 9 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoa. 2023/40 astetik 6062 detekzio erregistratu dira, 6043 (% 99,7) A motakoak eta 19 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1854 birusetatik, 434 (% 23,4) A(H3) eta 1420 (% 76,6) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, otsailean, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboak % 24,9 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 91,4) eta XDD (% 4,3) izan direlarik.

**Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE**




## COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 11. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 2,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (3,3/100.000 aurreko astean); 3,1 gizonetan eta 1,6 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 11 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik<sup>1</sup> (15 ospitaleratu aurreko astean), 4 gizon eta 7 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 90,9 60 urtetik gorakoa zen.

**COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE**



<sup>1</sup> Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 11. astean, 3 COVID-19 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (2 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua ere 3 izan da, aurreko astean baino bat gehiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

**2024ko martxoaren 20an**

**Zaintza Epidemiologikoa  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**